



Egileak

Joaquín Ferreiro Oliva

María Generosa Luz Gómez Giráldez

Gainbegiratzaile teknikoa

Raquel Recio Aguado

Aholkulari pedagogikoa

Javier Vicente Hormigos



Liburu honen salmentaren % 0,7 Bamenda-n (Camerun) eskola bat eraikitzeko izango da. Eskola horren eraikuntza SED (Solidaridad, Educación y Desarrollo) izena duen Gobernu Kanpoko Erakundeak kudeatuko du.

Liburu hau Lehen Hezkuntzako bigarren mailari
dagokio, Inguruaren Ezaguera arloari hain zuzen ere, eta i.b.lai
proiektuko material kurrikularretako bat da.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia (2007-10-29)

Gerentea: Agustín Oiarzabal · **Edizio zuzendaria:** Sabin Gorrotxategi · **Proiektuaren arduraduna:** Menchu Tadeo · **Edizio koordinazioa:** Jabi Artaraz eta Susana Lobo · **Kolaboratzaileak:** Marisa Elorriaga, Belinda Isasi eta Susana Álvarez · **Arte zuzendaritza:** GELVeko irudi eta diseinu mintegia · **Proiektuaren diseinu grafikoa:** Sebastián Baigún · **Azaleko argazkia:** Nicolás Huerin · **Testua:** Hitzurun · **Testuaren zuzenketa:** Belinda Isasi · **Produktio koordinazioa:** Inazio Jaio eta Pablo Silva · **Maketazioa:** Inazio Jaio, Ander Lauzirika eta Lola García · **Inprimaketa:** Publicidad Cuatroas S.L., Ibarsusi bidea 1-1. 48004 BILBO (Bizkaia). cuatroas@cuatroas.com

Inguruaren Ezaguera LMH 2 gida - 12396

ISBN: 978-84-8394-016-7 · Lege gordailua: Bl. 603-08

© Joaquín Ferreiro Oliva eta María Generosa Luz Gómez Giráldez, 2007
© Editorial Luis Vives, 2007 © Ibaizabal argitaletxea, 2007

Argitalpen honen eskubide guztiak Ibaizabal Edelvives S. A. argitaletxearen esku geratzen dira.
Copyrightaren titularren idatzizko baimena lortu ezean, ezin da lan hau osorik edo zatika
berregin, bidea edo prozedura edozein delarik ere (erreprografia eta tratamendu infor-
matikoa barne), ezta aleak publikoki errentan utzi edota maileguan eman ere.
Bestela, legeetan zehaztutako zigorrak ezarriko dira.

Aurkibidea

i.blai proiektua.....	4
Inguruaren Ezaguera arloari buruzko materialak	7
Ikaslearentzako materiala.....	8
Irakaslearentzako materiala.....	12
Inguruaren Ezaguera arloko metodologia	12
1. mailako edukiak.....	14
2. mailako edukiak.....	16
Gelako programazioak.....	18
Baliabide didaktikoak.....	45

i.blai proiektua

Lehen Hezkuntzako **i.blai proiektua**, oraintxe eskuen artean duzuna, guztiz bat dator hezkuntza lege berriak bultzatzen dituen printzipioekin eta helburuekin. Hezkuntza lege berriak, era berean, EBk proposatutako hezkuntza helburuak ditu oinarri; besteak beste, ikasle guztientzako hezkuntza eta trebakuntza sistemen kalitatea eta eraginkortasuna hobetzea.

Printzipio horiek abiaburu hartuta, hainbat funtsezko elementu lortu ditugu, eta elementu horiek izango dira, horrenbestez, hezkuntza aldi osorako proiektuari eutsiko dioten zutabeak, hiru zikloetako bakoitzean behar den modura zehaztuz. Nolanahi ere, beti hartu beharko dira kontuan ikaslearen heldutasun maila eta premia bereziak. Hona hemen aipatutako elementuak:

- Ikasleen **garapen kognitiboa**, ikasleak mintzamenari, ahozko ulermenari, idazmenari eta kalkuluari buruzko oinarritzko trebetasun kulturalak barneratzeko gai izan daitezen.
- Gatazkak era baketsuan konpontzeko eta gatazka egoerei aurrea hartzeko **trebetasun sozialak** eskuratzea eta **gaitasun afektiboak eta emozionalak** garatzea, nortasunaren esparru guztietan.
- **Arte eta sormen sena garatzea**, horiek baitira ikasleen trebakuntza osaturako sustatu behar diren ulerkuntzak.
- **Banaka eta taldean lan egiteko ohitura** sustatzea; eta, ikastean, ahaleginerako eta erantzukizunerako joera bultzatzea.
- **Bizikidetzaren balioak eta arauak** ezagutzea eta aintzat hartzea; berebiziko garrantzia emango zaio beste kulturak eta pertsonen arteko desberdintasunak ulertzeari eta errespetatzeari.
- **Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak** ezagutzea eta erabiltzea.
- **Ikaskuntza zailtasunei** aurrea hartzea, diagnostiko probak eginez eta erreformatu bideak abian jarritz.
- **Hezkuntza komunitate** osoa txertatzea ikasleen garapen afektiboan eta intelektualean.



Gauza nabarmena da, horrenbestez, **i.blai proiektuarekin** buruan dugun helburu nagusia ikasleen garapen osatua dela; esan nahi baita, ikasleen gaitasun guztiak garatzea, eta ez soilik kognitiboak, baizik eta baita afektiboak eta sozialak ere.

Horretarako, berebiziko ahalegina egin dugu bai irakasleen eskura eta baita ikasleen eskura ere hainbat material jartzeko, hain zuzen ere, honako hauek bultzatzeko asmoz: batetik, ikaskuntza era guztiak bateratzea erraztuko duten oinarriko gaitasunak eskuratzea, eta bestetik, ikasleen nortasuna eta haien gaitasun afektiboak garatzea.

Murgildu i.blai proiektuan!

Inguruaren Ezaguera arloari buruzko materialak



Ikaslearentzat

Ikasliburuak

- Inguruaren Ezaguera, 1. maila
- Inguruaren Ezaguera, 2. maila



Irakaslearentzat

- Irakaslearentzako gida



Ikaslearentzako materiala



Ikaslearen liburua

Unitate didaktikoaren egitura

Ikaslea motibatzeko irudi orria

Pertsonaia nagusiak agertzen joango diren irudi batzuen bitartez, unitateak aurkeztuko dira. Proposatzen diren jarduerak interaktiboak dira, eta jarduera horiek lotura hertsia dute irudiarekin.



Ikasleek aurretik duten ezagutzaren berri jakiteko eta edukiei buruzko oinarritzko datuak emateko jarduerak.




Motrizitatea lantzeko eta espazioan elementuak kokatzen ikasteko itsasgarriak eta ebakinak.



Garapen orrialdeak

Edukiak testu txiki batekin aurkezten dira, sarrera moduan, eta irudi bat izango dute lagungarri (marrazkia, eskema edo argazkia).




Edukien atariko testua.

Testuko edukiak lantzeko eta zabaltzeko prestatutako jarduerak.



Balioetan oinarritutako hezkuntzari buruzko orrialdea

Unitatearekin harremana duten zeharkako edukiak lantzeko orrialdea.





Pertsonaien bitartez eta testu labur batez baliatuta, landu beharreko gaien murgilduko gara.

Testua eta ideia nagusia lantzeko jarduerak.

Gogoetarako eta ondorioak ateratzeko jarduerak.

Prozeduren orrialdea

Orrialde hauetan, lanerako teknika errazak azaltzen dira; besteak beste, sailkatzea, elementuak bereiztea, orientatzea, denboran ordenatzea...



Prozeduraren sarrera eta azalpena.

Ikasitakoa praktikan jartzeko jardura.

Letren planeta

Irakurmena, irakurriaren ulermena, idazmena eta sormena lantzeko orrialde bikoitza. Orrialde horiek beste kultura batzuetarako atek zabaltzen dizkiete ikasleei.



Unitateko edukiekin lotura duten informazio irakurmenak, irudiz lagundutakoak.

Irakurketaren ulermena lantzeko jardura.

Idazmena lantzeko jardura, eta sormena eta irudimena ere landuko dira bertan.

Zenbat ikasi dudan!

Unitatean ikasitako eduki garrantzitsuenen ebaluazio jarduerak biltzen dituen orrialde bikoitza.



Ebaluazio jarduerak.

Kontzeptuen mapa, ikasleak osa dezan.

Ikaslea arrazoitzera behartuko duen galdera. Taldean lantzea proposatzen da.

Ikasleari unitateko edukiak aintzat hartzen lagunduko dion jardura.

Hiruhileko bakoitzaren amaieran

Ikasi dut eta badakit

Hiruhilekoko eduki garrantzitsuenak gogoan hartzeko jarduerak biltzen dituen orrialde bikoitza.

Hiruhilekokoan ikasitako informazio interesgarriaren laburpena.

Ikasleek jarduera gauzatzeko erabiliko duten irudia.



Hiruhilekokoan ikasitako berrikusteko jarduerak.

Jolas gaitzen!

Ikasgelan egiteko moduko lantegia proposatzen duen orrialde bikoitza. Lantegi bakoitzak hiruhilekokoan ikusitako edukiren batekin dauka harremana, eta, horiek gauzatzeko, manipula daitekeen materialeko fitxa batzuk emango dira.

Lantegiaren atarikoak




Eta gainera...

Itsasgarriak dituzten bi orrialde.

Manipula daitekeen materiala duten lau fitxa.



Ebakigarriak dituzten bi orrialde.



Irakaslearentzako materiala



Proposamen didaktikoa

- **Materialen aurkezpena eta deskribapena.** Proposamen didaktikoaren lehenengo orrialdeetan, **i.blai** proiektuaren aurkezpena egiten da. Era berean, hori osatzen duten materialak zein diren eta baliabideei ahalik eta etekin handiena ateratzeko zer modutan erabili behar diren ere zehazten da.
- **Metodologia.** Arloko printzipio metodologiko orokorrak azaltzen dira.
- **Programazioak.** Maila bakoitzeko edukien mapa txertatzen da, zikloaren ikuspegi orokorra izateko. Gainera, unitate bakoitzeko ikasgelarako programazioetan honako hauek biltzen dira:

- Oinarrizko gaitasunak
- Helburuak
- Ebaluazio irizpideak
- Edukiak
- Balioak
- Metodologia
- Taldekatzea
- Diziplinartekotasuna
- Baliabideak



- **Lantze didaktikoa.** Hainbat gauza aurkezten dira: metodologiari buruzko iradokizunak, aniztasuna aintzat hartzeko proposamenak, erabil daitezkeen baliabideak... Halaber, beste hainbat eta hainbat jarduera osagarri ere txertatu dira, honela sailkatuz: ahozkotasan jarduerak, garapenerako jarduerak... Unitate bakoitzaren amaierako orrialdeetako jarduera osagarriak ebaluaziozkoak dira; hiru hilekoko berrikusteetakoak, aldiz, berrikuste jarduerak.

- Erdietsi nahi diren helburuak.
- Metodologiari buruzko iradokizunak, edukiak lantzeko orientazioa eta laguntza ematen dutenak.
- Ahots goraz ebazteko jarduerak, eta saioa hastean ikasleak motibatuzko erabiltzen direnak.
- Ikaslearen liburuan daudenen antzeko jarduerak, zailtasun maila berekoak.
- Aniztasuna aintzat hartzeko jarduerak, era honetan sailkatuz: errefortzuzkoak eta sakontzekoak.

Eta gainera...

- Baliagarriak zaizkigun gure proiektuko beste material batzuen erreferentzia.
- Edukiak barneratzen laguntzeko erabil daitezkeen baliabideak eta teknologiak.

Inguruaren Ezaguera arloko metodologia

Inguruaren Ezaguera arloaren funtsezko helburua haurrak beren buruaren jabe izan daitezen lortzea da, haien aukerak zein diren ohar daitezen. Horretarako, beren gorputza sistematikoki ezagutzen hasiko dira, eta inguruan duten mundua aztertzeari ekingo diote. Helburu hori erdiesteko, honako **printzipio metodologiko** hauek izan ditugu oinarrian:

- **Gauza zehatzenetatik** abiatzea. Haurrek zuzen-zuzenean ezagutzen dituzten erreferentziak erabili behar dira; hartara, pixkanaka-pixkanaka aurkikuntza-aren bitartez, haien ikaskuntza modu berezian eratuko dute.

Unitate bakoitzeko interesguneetatik abiatuta lantzen dira edukiak. Gainera, jarduerak ikasleentzako zailtasun maila egokia dute; izan ere, ez dago norberaren aukeren gainetik dauden jarduerak egin beharra baino gauza frustragarriagorik.

- **Metodo zientifikoa** erabiltzea. Hau da, behaketa, analisisa eta, azkenik, hipotesiak eta ondorioak adieraztea.

Informazioaren tratamendua metodo zientifikoaren araberakoa da. Prozedura orrien bitartez, ikasleek tresnak eskuratuko dituzte, eta horien bitartez, hainbat egitura metodologiko landuko dituzte; besteak beste, irudiak deskribatu, koadroak osatu, sailkatu, denborazko sekuentziak ordenatu...

- Une honetan haurrek duten **jakin-minari** etekina ateratzea; izan ere, horixe da irakaste eta ikaste prozesuetako indar higiarazleetako bat. Sormena ere sustatu behar da, ezinbesteko ezaugarria baita hipotesiak botatzeko eta konponbideak proposatzeko gaitasuna garatzeko.

Orrialde motibatzaileetan proposatzen dugun elkarreraginezko lanek, irakurmenek eta idazmen ariketek motibatu egiten dituzte ikasleak, eta haien jakin-mina zein sormena sustatzen dituzte.

- **Osagai ludikoa** behar da, erraz manipulatzeko modukoa; izan ere, haurrek aldeztetik jarrera onarekin hartzen dituzten gauzak errazago onartuko eta barneratuko dituzte.

Honako proiektu honetan txertatu ditugun jolasei eta ikasleari eskaintzen zaizkion manipulatzeko moduko materialei esker, giro ludikoa sortuko da, eta lanak taldean egiteko eta ikasgela barruan bizikidetzan egoteko joera indartuko da.

Azkenik, azpimarratzekoa da funtsezko ezaugarria irizten diogula haurrengan inguruko munduari buruzko errespetu sentimendua pizteari, eta baita mundu hori zaintzeko jarrera aktiboari ere. Horregatik guztiagatik, proiektu honetan lehenetsutako garrantzia eman diegu **kulturaniztasunari** eta **balioei**. Horiei esker, haurrak inguruko beste egoera batzuetara hurbilduko dira, baina betiere, errespetuzko ikuspegi batetik, eta argi adieraziz elkarri lagunduz baino ez dugula lortuko guztiontzat bidezkoa izango den gizartea.

Honako proiektu honetan, ezinbesteko ezaugarria da **oinarrizko gaitasunak** lantzea. Hartara, haurrek aurrera egiteko aukera izango dute ondorengo hezkuntza zikloetan, eta heldutasunera iritsiko dira alderdi afektibo-sozialean, gizarte demokratikoan eskubide osoko kide moduan txertatzeko.

- **Hizkuntza komunikaziorako gaitasuna.** Entzuteko, hitz egiteko, irakurtzeko eta idazteko gaitasuna garatzean datza. Irakurgaiak, jolasak eta jarduerak landuko dira, ikasleek pentsa dezaten eta taldean haien iritzia eman dezaten.
- **Matematikarako gaitasuna.** Hainbat jarduera egingo dira ikasleek informazioa interpretatzen eta adierazten ikas dezaten eta oinarrizko matematika elementuak erabil ditzaten, eguneroko bizimoduko egoeretan aplikaturik.
- **Ezagutzaren eta mundu fisikoarekiko elkarrekintzaren gaitasuna.** Helburua da ikasleek beren burua ezagutzen ikastea, inguruan duten mundua interpretatzen jakitea eta ingurunean jarduteko premiazkoak dituzten trebetasunak barneratzea. Ezinbesteko garrantzia emango zaio haurrek erantzukizuneko eta errespetuzko jarrerak lantzeari, bai beren buruari begira, bai gainerako pertsoneri begira eta baita ingurumenari begira ere.
- **Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna.** IKTak proiektu honetako irakaste eta ikaste prozesuko beste elementu bat dira. Horiekin bi gauza lortu nahi dira; batetik, ikaste prozesua atseginagoa egitea; eta bestetik, haurrek IKTak gehiago ezagutzea, jakin dezaten informazioaren munduari zabalik dauden leihoak direla.
- **Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna.** Berebiziko arreta eskaintzen zaio balioen eta kulturantzatasunaren tratamenduari, eta baita gogoeta kritikoari eta elkarrizketari ere, gaur egungo gizartea ulertzeko eta herritartasun demokratiko eta erantzukizunekoak egikaritzeko bitartekoak baitira.
- **Giza eta arte kulturarako gaitasuna.** Ekimen pertsonala, irudimena eta sormena adierazpen modu gisa lantzen dira. Irakurgaien helburua, berriz, ikasleak haien ingurutik kanpoko kultura adierazpenetara hurbiltzea da. Hartara, adierazpen horiei buruzko estimu eta errespetu sentimenduak izango dituzte.
- **Ikasten ikasteko gaitasuna.** Zikloan barrena, pixkanaka-pixkanaka, informazioa antolatzeke hainbat estrategia erakutsiko zaizkie ikasleei: irudien bidezko eskemak; azpimarratutako hitzak; bolatxoak; kontzeptuen mapak; eta arreta, ulermena, adierazpen linguistikoa eta oroimena hobetzeko beste hainbat teknika. Era berean, zenbait elementu eta estrategia ere eskainiko zaizkie, haurrek ikasitakoari buruzko gogoeta egin dezaten, haien autonomia eta erantzukizuna hobetze aldera.
- **Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna.** Haurrak bere burua ezagutzea da helburua, haren aukerak eta baita haren premiak ere zein diren jakin dezan. Garrantzizkoa da ikasleek ekimen, kritikarako gaitasun eta irizpide pertsonal handiagoa izatea, egoerak ebaluatzeke eta erabakiak hartzeke gaitzak izan daitezkeen. Era berean, funtsezkoa da haurrek harremanetan jartzen, taldean lan egiten eta enpatia hobetzen eta elkarrizketarako gaitasuna hobetzen ikastea.